

## BAKARRIK EZIN DUTEN GORPUTZAK

*Emagaldu  
nahi dut*

*galdu*

*ni berri bat  
kausitzeko*

(E. Eizagirre)

**G**elditu zineten lehen egunean oso urduri zeunden. Lasai hitz egiten zuen berak, bere hitzak beso eta eskuekin lagunduz. Eta bat-batean, ohartu zinen sekula emakume bati ikusitako eskurik handienak zituela. Gehiago fijatu eta atzazkalak jaten zituela ikusi zenuen. *Zure eskuak gustatzen zaizkit*, esan zenion, pentsatu gabe. Lurrera begiratu zuen. Bere begietan lotsa ikusten zenuen lehen unea izan zen hura. Txikitan gorroto zituela esan zizun. Mutil eskuak zituela esaten ziotela eskolako gainontzeko umeek. Aita, ordea, pozik zegoen, baserrian lan egiteko esku aproposak omen zirelako. *Gero konturatu nintzen, nahi baino beranduago, nire esku hauekin plazera eman eta jaso ere egin nezaleela*. Eta aurpegia laztandu zizun. *Hurrengo astean jarraitzea nahi duzu?*. Bai, nahi zenuen. Zure etxean jarri zenuten berriro hitzordua, hurrengo asteko asteartean, arratsaldeko bostetan.

**B**ere eskua zure gorputzean nabaritu duzun unean zerbait esnatu zaizu barnean. Oilo ipurdia jarri zaizu azalean. Dar dar egin omen duzu, Leirek ahoa belarrira hurbildu eta xuabe xuxurlatu baitizu: *Prest zaude? Lasai, ez dut zuk nahi ez duzun ezer egingo*. Ez duzu erantzun. Zure ahoak ezin du hitzik ahozkatu, irribarre baino ez du egiten. Ezpainak burutik banatuta dituzula dirudi, ez diote buruak bidaltzen dien beldur alerta horri kasurik egiten. Berak ziurtasunez, baina kontu handiz, jarraitu du. Jantzita zaude, zure ohean, etzanda. Eta bera zure

alboan eserita, beste eskuaz zure gorputza zeharkatzen. Baina oraindik ez dizu arropa kendu. Ez duzue presarik.

Pixkanaka alkandorako botoiak kendu dizkizu. Banan-banan. Astiro. Askotan kendu izan dizkizute alkandorako botoiak, askotan jantzi eta erantzi dizkizute arropak, egunero, baina inoiz ez dizute horrela egin, inoiz ez zara konturatu botoi bakoitza kentzen dizuten bitartean aireari zure gorputzean sartzeko bidea errazten diozula. Askotan kendu izan dizkizute alkandorako botoiak, baina inoiz ez dizute horrela ikutu gorputza, inoiz ez dizute ikutze hutsarekin horrelako zirrarak piztu gorputzeko poro bakoitzean.

*Orain zuk egingo duzu, xuabe esan eta ezkerreko eskua hartu dizu. Esku okerrak zenituela entzun zenuen behin amak esaten ziola aitari. Eta zuk zure eskuetako orbanak ikusten zenituen bakoitzean hitz horiek gogoratzen zenituen, esku okerrak. Eta egia da, okerturik dituzu eskuak, eta hankak. Ezin dituzu mugitu, gorputzean ez baituzu sekula indarririk izan. Baina orain, Leireren eskuei esker, zure eskua gorputzeko txoko desberdinak deskubritzen ari da.*

Sabela ikutu duzu. Zilborra. Atzamarrarekin inguratu duzu. Pixkanaka. Zuloxoaren inguruko biloekin jolastuz. Eskua mugitu dizun arte, eskua gorantz eraman dizun arte. Eta ezkerretarantz, bularrera. Hankartea bustitzen hasi zaizula nabaritu duzu bularra laztantzen hasi zarenean, zilborrarekin egin bezala, titiburuak ere inguratzen aritu zarenean. Eta azkenean hatz erakusleaz ikutu duzu. Gogor dago. *Nire titiburua ikutzen dudan lehen aldia da. Lehen aldia. Gustatzen zaizu? Zelan ateratzen den nabaritzen duzu?* Irribarre egin duzu. Gustatzen zaizu titiburua ukitzean zure gorputzak sentitzen duena. Indarra. Sekula ez zenuen imaginatu zure barruan hainbesteko indarririk zegoenik. Eta bai. Bizitza osoan ahul sentiarazi izan zaituzten arren, indarra baino ez zara.

Eskua beste bularrera eraman dizu. Eta bertan utzi dizu, esku ahurrarekin bularra estalirik, bere tamaina eta forma sentituz. Poltsotik luma bat atera eta astiro aurpegia zeharkatu dizu. Bekokia, masailak, belarriak, ezpaimak, kokotza,.. Lepoa... Sorbaldak... Lumak gorputzeko atal bakoitza zeharkatzen dizun bakoitzean biloak itzartzen zaizkizu. Eta bitartean, zure eskua bularrean pausatuz duzu. Aztoratuta eta lasai sentitzen zara aldi berean. Aztoratuta,

gorputza esna, estimuluez gozatuz, estimulu berrien eske. Eta lasai, egon behar duzun tokian eta pertsona egokiarekin egoteak ematen duen sosegua dastatuz.

Luma burusiaren alboan utzi eta oraindik ikutuarazi ez dizkizun txoko berriak deskubritzeari ekiteko hurrengo pausua eman du. Bi eskuez, ziurtasunez, praken goiko goma oratu eta hanketatik behera irristatu dizkizu. Galtzerdiak, zapatak... Hanka bat. Eta bestea. Eskuineko eskua hartu eta kuleroen gainean jarri dizu. Bero dago. *Sentitzen duzu beroa? Hemen utziko dizut eskua. Oraintxe nator.* Sukaldera joan dela entzun duzu. Hozkailua zabaldu duela. Edo izozkailua. Izozkailua. Kubitera hausten entzun duzu eta izotzak edalontzi batera erortzen. Pla, pla, pla, pla.

Iribarretsu sartu da Leire. Edalontzia eskuan. Trapua bestean. Mahai gainean jarri ditu eta izotza hartu du. Oinetatik pasatu dizkizu, behatzetatik, oinbularretik, orpotik, orkatilatik... Hoztasun horrek zirrarak eragin dizkizu. Hoztasun horrek gehiago berotu zaitu. Kulero gainean duzun eskuan bero handiagoa nabaritu duzu. Izotza berriro edalontzian sartu eta esku bustiaz zure eskua hartu du. Kuleroaren ertzak zeharkatu dituzue, pixka bat barrura sartu duzue atzamarra. Eta gero berriro kanpora. Eta barrura.

Barrura. Bere esku bustia zure eskuan. Zure eskua alu bustian. Irristatuz. Mugituz. Deskubrituz. Ezagutuz. Zure eskua. Zeuen eskuak. Gero eta bustiago, gero eta beroago. Suabe hasi zarete, baina gero eta arinago mugitu duzue eskua. Kilikiliak. Kilikilitorisak. Eta eztanda. Magia. Ez duzu gorputza sentitzen, baina inoiz baino biziago sentitzen duzu. Ez dakizu nora joan zaizun burua. Eta berdin dizu, une hartan burua eta gorputza, bakoitzak bere bidea daramala dirudien arren, inoiz baino sinkronizatuen sentitzen dituzu, kaosaren armonian.

Eztanda eta gero ez zarete gelditu, erritmoa moteldu duzue berriro, baina laztanek jarraitu dute, desioak hor dirau, suabe orain, baina ziur. Kilikiliak. Kilikilitorisak. Eta eztanda berriz ere. Orduan bai, orduan gelditu zarete. Bertan dituzue biok eskuak, leizearen babesean. Isiltasuna. Ez duzue presarik. Isiltasuna.

...

*Eskerrik asko indarra emateagatik, esan diozu. Ez zara konturatu masailak malkoz bustirik dituzula. Nik ez dizut indarririk eman, barruan duzun indarra ezagutzen lagundu baizik.*

Isiltasuna. *Hurrengo astean, talde saiora eraman ahal zaitut, beste bi emakumerekin.* Leirek aluan zenuen eskua hartu eta malkoak ikutuarazi dizkizu. Ondoren ahora eraman dizu atzamarra. Zure gorputzaren itsasoak dastatu dituzu. Bizitza dastatu duzu.

**L**au gorputz. Lau emakume. Miren, Nerea, Leire eta zu, Nekane. Ohean. Biluztasuna, haragia, laztanak, barreak, xuxurlak, airea, arnasa. Bakarrik ezin duten gorputzak elkarri lagunduz. Elkarren gorputzak gorapilatuz, plazerraren gorapiloak askatuz. Disolbatuz, euren buruak eraikiz. Mugimenduan. Elkarrengan konfidantza izanik, norberaren gorputzetik haratago joanez, norberaren barru-barruraino helduz. Nerea eta zu ohean etzanda. Berak eskua hartu dizu eta zure eskuaz bere aurpegia laztandu du. Muxu eman dizu atzamarretan. Banan-banan miatzatu dizkizu. Bitartean, Leirek beste eskua hartu eta Mirenen ezpain haragitsuak ikutu ditu.

Mirenek ez du zure eskua ikusten. Baina zure atzamarren leuntasuna gustoko du, aise irristatzen dira bere ezpainetatik, kilikiliak eginez. Ez du zure eskua ikusten, ezin du zure eskua ikusi, baina sekula sentitu duen eskurik politena iruditzen zaio. Zure atzamar luze eta meheek hipnotizaturik daukate. Eta zu bere kilimek liluraturik zaude, bere hortzek zure atzamarrek ferekatzean, bere ezpainek muxukatzean, altxatu eta aho hori dastatu nahiko zenuke. Baina ezin duzu, ezin zara mugitu. *Emaidazu muxu*, esan diozu. Laster zure ahora eraman du bere ahoa. Eta muxu eman dizu. Zeuen ezpainek elkar ikutu dute, zure hortzekin bere ezpain haragitsuakin jolasean hasi zara. Suabe kosk eginez.

Mihiaz bere ezpainak zeharkatu dituzu, kanpotik. Eta barrutik. Bitartean, hezetasuna nabaritu duzu oinean. Mihi bat zure behatzean. Mihia eta hortzak. Tarteka. Behera begiratu eta Nerea ikusi duzu, ahozbehera etzanda, zure oinarekin jolasean, masajeatuz, muxu emanez. Leire ere hor dago, Nereari besoak laztanduz, muxuz plazerra marrartzuz. Plazerra marrartzuz, zauriak ezabatu. Zauriak erabiliz, marrazki berriak egiteko. Zauriak dituzten gorputzak plazerra emanez, jasoz. Zauriak dituzten gorputzak. Gorputz errealak. Plazer errealak.

Zure inguruan dituzun emakume horiek desiratzen dituzula sentitzen duzu gorputzean, gorputz horiek ikutzeko, deskubritzeko, mihazkatzeko, jateko gogoak dituzula. Gorputz horiei

esker zure gorputza hobeto ezagutzen duzula segundu bakoitzean, elkarrekin sortzen duzuen puzzleak zure barneko pieza berriak aurkitzen laguntzen dizutela.

Pixkanaka gorantza igotzen nabaritu dituzu Nerearen laztanak, muxuak, zure hanketan gora, izterretan gora. Suabe putz egin dizu hankartean eta bere arnasa barruraino sartzen nabaritu duzunean, gorputz osoa tente jarri zaizu. Kitzikatu zaitu eta gogorrago eman diozu muxu bere ahoa zure ahoan duen Mireni. Muxuz bete duzu. Ezpainak, masailak, lepoa, belarri-gingila... Berak irri egiten du eta bere eskuez zure aurpegia laztantzen du, belarriak ikutzen dizkizu, gogor, bero. Zu ere gero eta beroago sentitzen zara, esku desberdinak zure gorputzean, mihi desberdinak, ezpain desberdinak. Zure gorputzeko ezpain desberdinak aldi berean laztanduak izaten, muxukatuak izaten.

Bat-batean, konturatu gabe, deskarga sentitu duzu, kortozirkuitoa zure gorputzeko zelula bakoitzean. Kortozirkuitoa. Bakea. Bakea. Bakea. Bakea. Eta berriro haragiaren jokoan jarraitzeko gogoia. *Etorri nire gainera*, eskatu diozu Mireni. Hau, Leireren laguntzaz, zure gainean belaunikatu da, bere hankartea duzu bertan, bere ezpainak ezpain eske, muxu eske, jolas eske. Minutu batzuk lehenago Nereak muxukatu zaituen bezala muxukatu duzu zuk orain. Nereak jan zaituen bezala jan duzu.

Bitartean Nerea zure alboan etzanda dago, parez pare. Leirek belauniko jarri du, Mirenen aurrean, zure gainean, bere alua zurearen gainean, parez pare. Aurrean Mirenen bularrak dantzan, atzean Leire bere gorputza oratuz, bakarrik ezin baita tente mantendu. Lau gorputz mugimenduan, bakoitza bere erritmoan, plazeraren tandemean bakoitzak bere funtzioa betez.

Ezpainak elkarrekin dantzan, elkar ferekatuz, mugimendu desberdinak sortuz, batzuetan motelago, samurrago. Temperatura igotzen doan heinean, arinago, basatiago. Berriro deskarga sentitu duzun arte, berriro galdu zaren arte, zeure burua berriro aurkitu duzun arte. Orduan, Nereari begiratu diozu une batez. Gozamina ikusi duzu bere begietan, hutsa bere begiradan. Osoasuna. Akiturik, zure alboan etzan da, etzan du Leirek. Isilik daude biak, lasai.

Berriro begiratu duzu gora. Miren jaten jarraitu nahi duzu, plazera ematen jarraitu nahi duzu. Nerearen lasaitasuna albo batean, orgasmoaren osteko espazio anbiguo zein zehatz hartan

galdurik; Mirenen aztoramena gainean. Alua bustirik, ezpain handiturik, klitoriaren burua erne. Ahoa mugitzen jarraitu duzu, mihia, ezpainak. Ez zenekien mihia hain arin mugitzeko gai zinenik, ez zenekien hainbesteko gozamina eman eta jasotzeko gai zinenik. Orduan nabaritu duzu, ibai likatsuak aurpegia busti dizu. Ibai likatsu bezain goxoa. Orduan ikasi duzu beste gorputzetan ibaiak sortzeko gai zarela. *Mil esker*, esan dizu Mirenek. *Mil esker*, esan diezu zure hiru kideei. Aurpegiko ibai likatsua zure begien ibai gaziekin nahastu da.